Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Veronica Bidaurre Iraola

Donostia, Gipuzkoa (1937)



Aurkibidea

Biografia



Ibaetako Ixaberri etxean jaioa. Bost senide ziren. Ama Altzakoa zuten eta aita, berriz, Igeldokoa. Hura Lizarriturri xaboi fabrikan zebilen lanean, Antiguan. Veronica Igarako eskolara joan zen. Hilabete batzuk Suchard-txokolate lantegian eman ondoren, zapata-denda batean hasi zen lanean. Eta oihal-denda batean ondoren. Jabier Expositorekin ezkondu zen, etxera, eta bi seme izan zituzten. Errekaldera joan ziren, eta elkarrizketa garaian Benta Berrin bizi ziren. Juanita ahizparekin (ezkerrekoa) egin du kontu saioa.

Zintak

DON-116

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-05-05
- **Iraupena**: 176 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Antzinako Ibaeta

- **Erref**: DON-116/002
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:03:08. **Bukatu**: 00:04:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Ibaetako Ixaberri etxean jaio ziren. Beraien auzoa eta etxe ingurua nolakoa zen azaltzen dute. Bertan zeuden etxe eta baserrian aipatzen dituzte izen eta guzti. Igarako eskola ere bertan zegoen.

Transkripzioa
- Juanita: Barriyua. Barriyua. Ez dezu izautzen... ez dezu izautzen barriyo hoi /barriyuoi/?
- Veronica: Bueno, oain oso desberdiña dago.

- J: Desberdiña da, baiño...
- V: Zan karretera bat, osea, bide bat eta gure etxea zeon bide ondoan eta gero aurrero beste etxe bat eta atzero´re bai beste etxe bat. Osea, zan... aber, pues...
- J: Bai, barriyo bat, nola... Zan karretera...
- V: Bat, bi, hiru, lau, bost etxe ta Elbietxekin sei etxe. Sei etxe ordun.
- J: Bai, sei etxe hola, filan.
- V: Gero gehio. Gero in zituen gehio, Zubialde ta Etxe-eder ta atzeko hoiek. Baiño lehenengo zan Illarraberri, Zubiondo, gue etxia...
- J.: Ez, ez, Zubiondo guk gero izautu gendun, e?
- V.: Bueno, nik beti ezautu det /ezautuet/.
- J: Nik ez, nik iten ikusi nun.
- V: Baiño esan nahi nuke behintzat... hori.
- J: Zan Ixaberri, Munoberri, Perreneberri y Elbietxe.
- V: Bai.
- J: Hoik zian illaran.
- V: Ta gero aurreaxio ya ordun zan baserriya Portuetxe. Oain jatetxia dan tokiya. Baserri hoi /baserriyoi/ Portuetxe. Ta gero hauntzaxio Urrezti.
- J: Aurrero beste basarri bat. Baiño denak kamiyo ixkiñan.
- V: Kamiyo ixkiñan ta erriyo ixkiñan. Ta gero aurreroxio gure eskola zeon. Gure unibersidadia. Eskola Igara. “Escuelas de Igara” deitzen zitzaion.
- J: Bai, “Escuelas de Igara”.
- Eskola publikoa zan, ezta?
- J: Publikoa, bai, bai, bai.
- V: Ijituak egondu zian oain hurruna, azkeneko. Oain ya ez do /ezto/ edifiziyoik´e; bota in [...].
- J: Ke pena, e?
- V: Bai, holako edifiziyo polita.

2. Manta gutxirekin berotu behar

- **Erref**: DON-116/006
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:09:33. **Bukatu**: 00:11:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Artilezko koltxoiak beroak izaten ziren. Baina ez zuten nahi beste manta izaten. Ohe bakoitzean bat bakarra izaten zuten eta ez gaur egungoak bezalakoak. Askotan lehenago jantzitako berokia-edo bota behar izaten zuten gainetik. Beraien mailako etxe guztietan berdintsu bizi omen ziren. Juanitak bonba gabeko komuna ezagutu zuen, Veronicak ez.

3. Kokoa txerriak hazteko

- **Erref**: DON-116/007
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:11:39. **Bukatu**: 00:15:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Urtean hiruzpalau txerri hazten zituzten etxean. Beraien aitak Lizarriturriko xaboi-lantegian egiten zuen lan eta handik kokoa ekartzen zuen txerrientzako. Kokoari olioa kentzen zien xaboia egiteko lantegian eta handik ekartzen zituen koko-tabletekin hazten zituzten txerriak. Komun luze-luzea zutenez, bertan izaten zituzten tableta haiek.

4. Dutxarik gabe nola moldatzen ziren

- **Erref**: DON-116/008
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:15:16. **Bukatu**: 00:16:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Komunean ez zuten dutxarik, palankana batekin botatzen zuten ura beraien burua garbitu ahal izateko.

5. Komuneko paperik gabe

- **Erref**: DON-116/009
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:16:32. **Bukatu**: 00:17:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Komuneko paperik ez zutenez egunkaria erabiltzen zen. Egunkaria astean behin-edo erosten zuen osabak. Veronicak dio aitak Lizarriturriko xaboi-lantegitik, lan egiten zuen tokitik, ekartzen zuela enbalatzeko paper gogorra eta hura ere erabiltzen zutela.

6. Ura berotzeko ekonomikako depositua

- **Erref**: DON-116/010
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:17:17. **Bukatu**: 00:19:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Argia eta ura beti ezagutu dute etxean. 125 batio zituen eta ez zuten aparteko arazorik izaten. Ura ekonomikan berotzen zuten, ekonomikan ura berotzeko depositu bat baitzuten. Ontziak garbitzeko ur beroa ere handik hartzen zuten. Ura berotzeko sua piztu behar izaten zuten eta askotan ezin izaten zuten sua piztu.

7. Arropa garbitzea eta lixiba

- **Erref**: DON-116/014
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:26:19. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Atari aurrean mendiko ura zuen aska txiki bat zuten arropa garbitzeko. Hori baino lehenago ama-eta erriora joaten ziren, horretarako preparatuta izaten zuten bertan harri bat. Aitak Lizarriturriko xaboi-lantegian egiten zuen lan eta Lagarto xaboia erabiltzen zuten. Lixiba zelan egiten zuten azaltzen dute: terreina baten ura irakiten jartzen zen, lehengo arropa zuria eta gero koloreduna sartzeko.

8. Etxe aurreko espaloietan arropak eskegita

- **Erref**: DON-116/015
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:30:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropak eskegitzeko kakoak leihoetan jarri baino lehenago, atari aurreko espaloietan, errepidea pasatuta, jartzen zituzten taket batzuetan alanbreak jarrita.

9. Gerra aurretik ere eskolan erdaraz

- **Erref**: DON-116/017
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:31:28. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Igarako eskolan lau urterekin hasi zela uste du Juanitak; Veronica, aldiz, lehenago hasi omen zen. Lehenengo solairuan mutilak egoten ziren eta bigarrenean neskak. Ramona Etxarri maistra lasartearra izan zuten. Eskolan gerra aurretik ere erdaraz egiten zuten, baita beraien gurasoek ere.

10. Gerra aurreko eskolarik gerraostekora jauzia

- **Erref**: DON-116/019
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:33:18. **Bukatu**: 00:34:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Igarako eskolako Ramona Etxarri maistra lasartearra euskalduna zen, baina beraiekin ez zuen sekula egin, ezta gerra aurretik ere. Gerraostean 'Cara al Sol' abestu eta bandera leihoan zintzilikatu behar izaten zuten.

11. Errepublikako bandera eskolan

- **Erref**: DON-116/020
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:34:56. **Bukatu**: 00:36:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Errepublika garaian bandera errepublikazalea jartzen eta kentzen zuten egunero eskolan. Gerra aurretik ez du gogoan gurutzerik zutenik.

12. Etxea konfiskatzea

- **Erref**: DON-116/030
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:48:19. **Bukatu**: 00:49:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Gerran jende askori konfiskatu zizkien etxea eta ondasunak.

13. Aita Lizarriturriko sugina zen

- **Erref**: DON-116/032
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:49:48. **Bukatu**: 00:52:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Beraien aita Lizarriturriko xaboi lantegiko sugina ("fogoneroa") zen. Juanita eskolatik irteterakoan aitari bazkaria eramatera joaten zen. Lanordu luzeak izaten zituzten.

14. Lizarriturriko xaboiak eta etxerako lanak

- **Erref**: DON-116/034

- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:52:48. **Bukatu**: 00:54:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Lizarriturriko xaboi-lantegian xaboi mota desberdinak egiten zituzten. Langileek etxera ere eramaten zuten lana, beraiek ere aritu ziren xaboia paperean biltzen. Juanita Lizarriturriko xaboi-lantegian lanean hasi zenean, 6.5 pezeta kobratzen zituen eguneko.

15. Sukia txokolatea

- **Erref**: DON-116/035
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:54:21. **Bukatu**: 00:56:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Juanitak 14 bat urterekin Matia kaleko Sukia txokola-tailerrean hiru pezeta kobratzen zituen. Txokolateak eta kandelak egiten zituzten. Hiru lagun eta nagusia aritzen ziren lanean. Kakaoa, azukrea eta irina ziren txokolatearen osagaiak.

16. Gurdiak xaboia banatzen

- **Erref**: DON-116/042
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:08:22. **Bukatu**: 01:09:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Beraien etxeko osaba gurdian aritzen zen Lizarriturriko xaboia banatzen Donostian zehar. Animalien partez berak tiratzen zuen gurdia.

17. Lagarto xaboia

- **Erref**: DON-116/043
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:09:51. **Bukatu**: 01:11:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Lizarriturriko xaboi-lantegiko Lagarto xaboiak ospe ona zuen. Beraien etxera etortzen zen medikuak ere xaboi hori nahi zuen eskuak garbitzeko, ez zuen tokadoreko xaboirik nahi eskuak garbitzeko. Burua ere Lagartorekin garbitzen zuten. Ileak distira izan zezan ozpina botatzen zuten.

18. Trentza luzeekin

- **Erref**: DON-116/044
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:11:18. **Bukatu**: 01:12:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Neskatotan ez ziren ile-apaindegira joaten. Trentzak izaten zituzten.

19. Anai-arreba nagusiek ez zuten apaintzea nahi

- **Erref**: DON-116/046
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 01:13:09. **Bukatu**: 01:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:
Garai batean mutil asko gerran zeudenez, baserrietan morroi falta zegoen. Beraien neba eta ahizpa zaharrenak izebaren baserrira joan ziren orduan. Ahizpa hark ez zion uzten Juanitari ilea moztea eta permanentea egiten. Nebari ere ez zitzaion batere gustatzen ezpainak margotzea.

20. Irubidera eta Lasartera dantza egitera

- **Erref**: DON-116/049
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:18:48. **Bukatu**: 01:20:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
14 bat urterekin hasi ziren Irubidera dantzan egitera. Handik Lasartera joaten ziren.

21. Mutilekin dantzan, baina distantzia mantenduz

- **Erref**: DON-116/051

- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:22:48. **Bukatu**: 01:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Gaztetan Lasartera joaten ziren erromeriara. Jo eta su aritzen omen ziren dantzan, euria izanez gero ere berdin zitzaien, aterki eta guzti. Helduta ere egiten zuten dantzan, baina larregi arrimatu gabe. Juanita beti izan da fededuna eta apaizak esandako guztia sinesten omen zuen.

22. Misioetako sermoi beldurgarriak

- **Erref**: DON-116/055
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 01:28:02. **Bukatu**: 01:31:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Matia fundazioa dagoen tokian kapera zegoen eta auzokoak bertara joaten ziren. Goizeko zazpietan izaten zen meza. Misioetako sermoiak beldurgarriak ziren. Juanitak gogoan gu behin negarrez bueltatu zela etxera. Dena zen bekatu. Pentsamendu txarrik ere ezin zuten izan, ez baitzuten sekula ezer ere ikusi.

23. Hilerokoa zutenik etxean ere ez zuten esan

- **Erref**: DON-116/057
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 01:31:31. **Bukatu**: 01:34:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Inork ez zien hilerokoari buruzko azalpenik eman. Juanita nagusiagoa izan arren, Veronicari ez zion ezer kontatu. Lotsaren eraginez, Juanitak hilabete batzuetan hilerokoa zuela ezkutatu zion amari. Veronica ahizpari esaten ere ez zen ausartu. Nobio garaian ere beti dena frenatzen aritzen ziren.

24. Apaizak bakarrik aritzen ote ziren galdezka

- **Erref**: DON-116/060
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:37:10. **Bukatu**: 01:39:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Ezkondu ostean ere, konfesatzerakoan apaizak bikote kontuak galdetzen zizkieten. Ezkondu aurretik ere ea bakarrik aritzen ziren galdetuz gero, ez zuten ulertzen zer zen hori, ezin zitzaien bururatu bakarrik zer edo zer egitea posible zegonik. Antisorgailuak erabiltzea ere bekatua zen eta bikote erlazioan ere beti zuten tentsioa haurdun gelditzeko beldurraren eraginez.

25. Preserbatiboa bekatu handia zen

- **Erref**: DON-116/062
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:40:03. **Bukatu**: 01:42:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Antisorgailuak erabiltzea bekatua zen eta bikote erlazioan ere beti zuten tentsioa haurdun gelditzeko beldurrez. Arrisku gehiago zuten "marcha atras"arekin, baina preserbatiboa bekatutzat zuten eta bekatu handiagoa zela uste zuten hura erabiltzea.

26. Umea Paristik etorri zela esan

- **Erref**: DON-116/063
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 01:42:05. **Bukatu**: 01:43:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Veronica jaio zenean, Juanita eskolan zegoen. Bere ahizpa Paristik etorri zela esan zioten. Baina ordurako bederatzi urte zituen eta konturatu zen amak tripa handia zuela eta gainera lagun batek esan zion haurra egiteko zegoela. Denak jaio ziren etxean.

27. Erditzea eta jaioberriaren zainketak

- **Erref**: DON-116/064
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 01:43:47. **Bukatu**: 01:47:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Juanitak bi ume etxean izan zituen. Lehenengoaren erditzea luzea izan zen eta asko sufritu zuen. Umea garbitzeko dena izaten zuten prest eta emagin papera egiten zuen emakume bat arduratzen zen horretaz. Zilborrean faxa moduko bat jartzen zitzaion jaioberriari.

28. Jaioberriak barreñoan garbitu

- **Erref**: DON-116/065
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 01:47:10. **Bukatu**: 01:47:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Beraien umea koskortu arte ez zuten dutxarik izan. Jaioberriak terreina (barreño) batean garbitzen zituzten.

29. Batailo eta elizara sartzea

- **Erref**: DON-116/066
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:47:54. **Bukatu**: 01:49:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Jaioberria ahal zen eta azkarren bataiatzen zuten. Ama ez zen bataiora joaten, baina gero elizara sartzea egin behar izaten zuten.

30. Umeen elikadurari ez zitzaion erreparatzen

- **Erref**: DON-116/069
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 01:54:05. **Bukatu**: 01:57:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Pitarrak ur asko du, ez da sagardo hutsa, eta umetan asko edaten zuten. Umeei atxikoriarekin egindako kafesnea ere ematen zitzaien. Elikadurari horrenbeste erreparatu gabe ere ondo hazi ziren. Kalentura enpatxuaren eraginez izaten zutela esaten omen zuen beraien amak, baina ez ziren sekula enpatxatzen. Esnegaina ere ogian jarrita jaten zuten.

31. Osaba estraperloan Nafarroara

- **Erref**: DON-116/071
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:57:24. **Bukatu**: 01:58:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Beraien etxeko osaba Lekunberriraino edo Aranora joaten zen gose garaian.

Hernanira heltzerakoan, lasaitu egiten zen Guardia Zibilen beldur izaten baitzen. Baba edo beste zer edo zer ekartzen zuen ezkutuan.

32. Artoa sindikatura entregatu eta errota

- **Erref**: DON-116/072
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:58:21. **Bukatu**: 02:00:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Gerraostean, baserritarrek artoa sindikatura, falangera, eraman behar izaten zuten. Portuetxetik gertu Errotazar izeneko errota zegoen eta beraiek bertara joaten ziren. Veronicari asko gustatzen zitzaion taloesnea. Juanitak gogoan du gerra aurretik ez zutelako horrelako ogi faltarik, hiruko ogia deitzen zitzaion.

33. Gurasoenera ezkondu eta laurak logela berean

- **Erref**: DON-116/080
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 02:13:01. **Bukatu**: 02:16:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Gurasoen etxera ezkondu zen Veronica. Lau logela zituzten eta beraien bi umeak jaiotzerakoan, laurak batera egoten ziren, askotan laurak ohe berean. Maizterrak ziren eta ezin zuten nahi zutena egin etxean.

34. Aita beheko solairura erori etxeko zorua hondoratuta

- **Erref**: DON-116/082
- **Iraupena**: 0:05:41. **Hasi**: 02:20:04. **Bukatu**: 02:25:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Beraien aita lo-kuluxka egiten zegoela, ohetik altxatu eta beheko etxeko logelara erori zen. Zorua hondoratu eta beheko emakumea zegoen ohera erori zen. Beraien ama etxean zegoen, baina ez zuenez ondo entzuten ez zen ezertaz konturatu.

35. Jaunartzea euskaraz amaren egoskorkeriagatik

- **Erref**: DON-116/084
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 02:26:33. **Bukatu**: 02:30:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Ibaetatik Antiguara joaten ziren dotrinara. Gerra aurretik, Juanitak jaunartze txikia euskaraz egin zuen don Tomas Arteagarekin. Gerora euskaraz hitz egitea debekatu zuten eta dotrina erdaraz ikasi behar zuten umeek. Baina bere amak ez zuen horrelakorik onartu eta etxean ikasi zuen dotrina euskaraz. Hori dela-eta, dena euskaraz egin zuen. Antiguako orduko apaiza don Francisco Yarza zen eta ez zion inongo eragozpenik jarri. Veronicak ez zuen horrelako aukerarik izan, dena egin baitzuen gaztelaniaz.

36. Umetako jolasak

- **Erref**: DON-116/085
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 02:30:11. **Bukatu**: 02:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
"A la vuelta del arbol", harrapaketan, "a chingos", tabakin... aritzen ziren umetan. "A guardias y ladrones" ere ibiltzen ziren, baina batez ere mutilak.

37. Andala-porru eta ezkur bila

- **Erref**: DON-116/090
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 02:34:40. **Bukatu**: 02:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:
Txerrientzako andala-porru eta ezkur bila joaten ziren mendira. Andala-porruak txerrientzako oso onak ziren belar batzuk dira.

38. Erremedio naturalak

- **Erref**: DON-116/091
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 02:35:40. **Bukatu**: 02:39:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Ez zuten medikutara joateko ohiturarik. Txitxare-belarrak, plantiña-belarrak, labatibak... Barrenengo zikina kentzeko labatibak nola egiten zituzten azaltzen dute. Txitxare-belarrak eta plantiña-belarrak infusiotan hartzen zituzten. Enplastoak egiteko berbena-belarra eta plasmo-belarra erabiltzen zuten. Azazkal ondoak baratxuriarekin igurzten zituzten.

39. Berbena-belarra eta zuringoa zaldarrentzat

- **Erref**: DON-116/092
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 02:39:04. **Bukatu**: 02:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Juanitak zaldar asko izaten zituzten eta berbena-belarrarekin eta arrautza zuringoarekin egindako enplastoarekin ateratzen zuen barruko zikinkeria.

40. Ama Birjinak eta ur bedeinkatua

- **Erref**: DON-116/095
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 02:42:22. **Bukatu**: 02:44:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Karmengo Ama Birjinaren eskapularioa izaten zuten. Milagrosa Ama Birjina etxetik etxe eramaten zuten eta limosna bota behar izaten zioten. Ur bedeinkatua eta su bedeinkatua. Ur bedeinkatua norbait hiltzen zenean erabiltzen zen.

41. Kandela eta erramu bedeinkatua

- **Erref**: DON-116/096
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 02:44:39. **Bukatu**: 02:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Ekaitza zetorrenean, kandela bedeinkatua piztu eta bedeinkatutako erramuarekin gurutzea egin eta leihoan jartzen zuten.

42. Eskolara oinez eta manta azpian

- **Erref**: DON-116/099
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 02:46:57. **Bukatu**: 02:47:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Eskolara distantzia luzea izan arren, ez zuten autobusik izaten. Euria eginez gero, korrika joaten ziren. Askotan manta baten azpian joaten ziren. Neguak gogorrak izaten ziren.

43. Etxe ingurua erraz izozten zen

- **Erref**: DON-116/101
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 02:48:31. **Bukatu**: 02:50:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Beraien etxe ingurua erribera zen. Igel asko egoten ziren eta euri pixka bat egiterakoan, urak hartzen zuen inguru guztiak. Hotzaren ondorioz dena izozten zen. Leihoetako kristala ere izoztuta izaten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-09

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com